



Zinema Euskaraz 2017

**ZINEMA EUSKARAZ PROGRAMARAKO BIKOIZKETA ETA KONTROL
TEKNIKOAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN
AGIRIA**



1. HELBURUA

Dokumentu honen xedea eskaintza-egileei ZINEUSKADI elkarteak kudeatutako "ZINEMA EUSKARAZ PROGRAMARAKO BIKOIZKETA ETA KONTROL TEKNIKOAREN ZERBITZUA" eskaintzeko beharrezko dokumentazio teknikoa hornitzea da

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzuaren tipologia

ZINEUSKADI elkarteak beharrezko jotzen du "ZINEMA EUSKARAZ" programaren barruan hautatutako filmen merkataritzako ustiapenerako film luzeen, animazioen eta dokumentalen bikoizketa- eta azpigitulu-zerbitzua kontratatzea.

Bikoizketa-zerbitzua zatituta, gehienez, hiru onuradunei esleituko zaie.

Bikoizketa zerbitzua euskaraz egingo da.

Bikoiztu beharreko materialen gidoiak hizkuntza hauetako batean emango dira: gaztelania, ingelesa, frantsesa, italiara edo alemana.

Zerbitzuaren iraupena

Kontratuaren gehieneko iraupena urtebetekoa izango da. Alderdiak ados egongo balira, kontratua behin luzatu ahal izango da, gehienez ere hasierako kontratuko iraupenarekin.

Esleipendunaren eskakizunak

- ❖ Euskarara aretoetarako 10 film luze bikoiztu izana gutxienez.

Entregatutako produktuaren bermea

Esleipendunak izango du honako hauen ardura:

- ✓ Produksioa bermearekin egiteaz eta produktuaren kalitate teknikoa kontrolatzeaz (masterra edo kopia, egin behar duten kasuetan), esleipendunak jasotzen duenetik, amaierako produktua ZINEUSKADI elkarteari entregatu arte.

Kalitate teknikoko arazoak egonez gero, eragindako kalte-galeren arabera zehaztuko den kalte-ordaina aurrez ikusi beharko da.

3. PROPOSAMEN TEKNIKO ETA EKONOMIKOKO EREDUAK

3.1 PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EREDUA

A.1 ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

- Zerbitzuaren deskribapen-memoria.
- Bezeroen beharrei erantzuteko denbora.
- Hizkuntza-zerbitzuaren antolaketa eta egitura.
- Lana planifikatzeko prozesua.
- Alorren araberako langileen deskribapena.
 1. Ahotsen agenda (langileak eta autonomoak) zerikusia duten lanen erreferentziakin eta horietako bakoitzarekin (bikoiztaile bakoitzari) lotutako erregistroen zerrenda
 2. Ahotsen agenda horren bilakaera hurrengo hiru urteetarako, erregistro estrategikoak txertatzeko eta mantentzeko planak eta irizpideak
 3. Ahots eta erregistro berriak detektatzeko eta erakartzeko politika zehatzak. Prestakuntza-politikak eta lehendik dauden politiken optimizazioa.
 4. Langile finkoen eta behin-behinekoen curriculumak itzulpenaren eta egokitzaileren kategorian. Zehaztu egin beharko da zein curriculum dagozkien langile finkoei, eta zein autonomoei edo behin-behineko langileei.
- Ahots-castingaren hautaketarako aplikatzen diren irizpideak, horien errepikapena txikitze arreta berezia jarrita.

A.2 ELKARTEAREN INFORMAZIO OROKORRA

- Enpresaren curriculuma.
- Aretoetarako 10 film luze euskarara bikoiztu izana egiaztatzen duen ziurtagiria (izenburuak)
- Sozietateko akziodunak.
- Ekintzak.
- Banaketa geografikoa.
- Ekonomia- eta finantza-informazioa.
- Beste batzuk.

3.2 . PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Ezinbestekoa da proposamen ekonomikoa Excel formatuan entregatzea, Baldintza Juridikoen Agiriko I. ERANSKINEAN adierazitako ereduari jarraiki.

3. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Enpresa esleipenduna honako irizpide hauen arabera hautatuko da:

- | | |
|--|-----------|
| a) Proposamen teknikoa | 50 puntu. |
| a.1 Zerbitzuaren deskribapena (40 puntu) | |
| a.2 PLANIFIKAZIOA (5 puntu) | |
| a.3 KAUDIMENA (5 puntu) | |
| b) Proposamen ekonomikoa: | 45 puntu. |
| c) Esleipendunak proposatutako beste hobekuntza batzuk | 5 puntu. |